

# AURRERÁ



(ON ANTONIO ARZÁC JAUNA-RI)

Euskal fueroak oroiturikan, nago triste eta penaz: eta aiñbesteraño da nere tristura eta pena, nun biyotza daukatan gau eta egun illunak egoten diran bezela. Eduna, bere urre kolorezko eguzki eder disdizariya odoi belz gaistua estaltzen dutenian bezela; gaba, aizea chistuka, eta turmoi eta chimistak kazkarabarrak leyuetao kristalak zatiturik egoten danian bezela. ¡Eta oraindik geiago amak bere biotzeko umechoak eriotzian ikusten ditubenian bezela! ¿Zeiñ ama bere umeak maite ezti-tubena? ¿Zeiñ seme bere ama maitiari bi begiak eta bear izan ezker bere biotza emango eztona? ¿Zergatik daukatan orlako pena? ¿Zergatik orlako tristura? Zergatik baserritarrak bere zelai primoriak, arto eta lasto koloreko sagar gozuak, beste gauza askorekin batian, danak galdurik ikusten dituben bezela arriak jotzen dizkanian, nik ere malkoz begiak beterik ikusten detan gure ama lurraren apaintasunak, eta edergarrizko legeak, anchiñako jendeak chapela kendurik erregu egiten ziotenak, erbesteko jendeak dirala mediyoz, eta gure arteko fede guchiko semeak ayei lagundurik, danak lurperatuta. Urte askuan gure fueroak izan oidira danarentzat chit onak eta Euskal-erriak bere lege on eta santuarekin begira azitzen zion erbesteari gure espillu garbi ederrian, bañan ayek gure ontasuna eziñ eramanik, gure espilluban begiratuta berak igual jartzeko sayatubiarriari, egintzuten beraren kaltian eta gurian, okerrera arturik, altzuten gaitz guztiya.

Etziran kontentu piškabat urratubarekin gure legezko izatea, baizik egintzuten, (eta egiten dute) dana purrukatzeko moduba. ¡Ainbeste-

raño etsayak ichutu zituen! ¡baña gure Jaungoiko maitia beti bere zeru zabal ederretik, aingeruchoak lagundurik bere arpegi alai, eta urreztutako illeak chinchilik dituztela bizkarrian bera kantu primoriak kantatubaz, dago Euskal-erriari begira!

Jaunak egingodu etsai oyek eztezen aurrera segitu beren tema charrean. Eztu lagurtuko geiago gure legerik, indarra eta arrazoya gure aldetik dauden bitartean, zergatik aín ederra da, aín garbia, aín arrazoizkua gure Lege zarra, naiz millaka jarri gezurrak kontra egiten aurriau danak geldituko dira chikitubak

Ez ere ichusitu, ez gure legerik eta ez gure izkuntzik.

Zenbat alegiñ egiten duten gure izan modubak ichusitzeko, ainbeste aldiz gure *Kondairak* atera oiditu gezurti.

Gure izkuntz jatorrizkua galdu nairikan egiñ dute alegiña, baña ¡aiñ da ederra ta zoragarria! eta ainbesterañoko amoriyua daukagu artuba beregana, non ez litekian ezerchore egitia ayen borondatia ala izan arren.

Ez dezute izkuntzik  
Gurerik galduko  
Gauz ortan daukazute  
Zuek lana franko.  
Gure semeak laister  
Dute ikasiko  
Danak alkarturikan  
Indarra emateko.

Gernikako arbol santuba len aín aundi eta zabala zegubena eta ostoak berdeturik millaka chinchilik erukitzen zitubena oraiñ dana argaldurikan dago, eta arren apaintasunak iya lurperaturikan.

¡A! Gure aita maitien aitonak, guri mudu onetara orlako lege ederrak ekarri zizkigutenen beren odola isuririk eta iltzeko trantze estuban jarririk, galdurikan beren guraso maiteak batzubek, beren emazte eta ume biotzekoak bestiak, baleudeke oraiñ begira gauzak zenbaterañoko mudantzak egin dituzten, eztaukat dudarik lotsatuko lirakela gutaz: zergatik ayek ainbeste lanekin guri jarritako legeak, guk galtzen utzi ditugun.

Bañan, ¿ez dauka antolatasunik gaizki egiñak? Bai milla bider. Ainbesterañoko fedia daukat Euskal-erriko semietan eta esperantza ordainduko dizkigutela linguak.

Noiz, eta noia? Ori da gauza bat nik eziñ esan nezakiena, eta ondo

pentsatu eta egin biardana umekeririkan gabe, gizon jakintsubak eta Euskal-fueroetan fedea daukazkienekin alkaturik.

Danak alkartutzen bagera, egingentzake asko gure erri maitearen alde, eta fedez eta amoriyoz lana egiñaz, gure semeari erakutsiyaz gure aitonak erakutsi ziguten bezela, jarri gentzake ontasunez eta edertasunez estalirik.

Nere penak eta tristurak laister alde egingo luteke, eta biotza pozez beterik jarriko litzaidake baldin Euskaldun guztiak alkaturik, batean, biotzez lan eginda gauzak len zeuden modura jartzen sayatuko balira.

Aurrerá begira segizagun beti, gaizki egindakuak ondo jarriaz eta noiz bait gure semeak bedeinkatuko dituzte guk egindako lanak.

Aurrerá.

JOSÉ M. ARRIETA.

